HAZI FUNDAZIOAREN "ARDOA BASQUE WINE OFFICE" BULEGOARI AHOLKULARITZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. AGIRIAREN XEDEA

Kontratuaren xedea ARDOA BASQUE bulegoari aholkularitza iraunkor eta integraleko zerbitzu profesionalak ematea da, bereziki honako arlo hauetan: edarien euskal sektorea, retailaren euskal merkatua, edarien nazioarteko merkatuak, edarien merkatuaren logistika eta eremu horretako lan-sistematika.

ARDOA BASQUE WINE OFFICE Euskadin edarien industriaren (bereziki ardoa, sagardoa eta artisau-garagardoa) nazioarteko lehiakortasuna babestu eta bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen proiektu bat da, eta HAZI Fundazioak garatzen du. Haren helburua da Euskadiko edarien industria-sarearen parte diren marka kolektibo zein indibidualak bultzatu eta sustatzea. Bulegoa jaio da izugarrizko konplexutasuna duen agertokiari erantzuna emateko, non hiru ildo estrategikotan laburbiltzen diren erronkei egin beharko dien aurre:

- NAZIOARTEKOTZEA
  a. Euskal ardoen marka kolektiboen posizionamendua sustatu eta sendotzea nazioartean.
  b. Indarra izatea, garrantzia eta banaketara sarbidea izateko gaitasuna handitzeko.
  c. Merkatuei eta joerei buruzko ezagutza zehatza izatea, hazteko aukerak hautematea eta nazioarteko merkatuen ziurgabetasunari aldez aurretik eta arintasunez aurre egitea.
- INDUSTRIA-SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA
  a.- Sektorearen errealitateen egoeraren eta premien diagnostiko zehatza egitea.
  b.- Identifikatutako arazo eta premientzako konponbideak aztertu eta ematea, garatu beharreko neurrien "pertsonalizazio" ikuspegitik.
  c.- Erakundeak eta ekintzak koordinatzea, sinergiak ezarri, inbertsioen errendimendua hobetu eta kolektiboari on egingo diote helburuak sustatzeko.
- ETORKIZUNEKO ERALDAKETEI AURREA HARTZEA
  a.- Erronkei aurre egitea, besteak beste, klima-aldaketaren, kontsumo-ohituren aldaketen, nazioarteko merkatuaren arauketan egon daitezkeen nahasteen, moden eta edarien euskal sektoreari eragin diezaioketen bestelako eraldaketen ondorioz ustiategietan gerta daitezkeen aldaketei.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da aipatutako eremuan edo eremuetan kualifikazioa duten eta adituak diren pertsonek gauzatzea prestazioa, aditu horien berehalako erantzuna, baita aurrez aurrekoa ere, bermatzeko.

2. LANEN IRISMENA

Zehatzak izateko asmorik gabe eta adieraztea beste xederik gabe, kontratazioak, besteak beste, aholkularitza teknikoko zerbitzu profesionalak hartzen ditu barne, batik bat, honako eremu hauetan:

- Ardoa BWOren giza taldea koordinatzen laguntzea
    - Hazi Fundazioaren arloetan (Merkak eta Merkatuak, Ziurtapena eta Kontrola, Ekintzailetza eta Prestakuntza, Sektore Sarea, Komunikazioa etab.) dauden eta edarien euskal sektorearekin lotutako proiektuetan funtzioak dituzten edo izango dituzten pertsonak koordinatzeaz arduratuko da.
    - Lankidetza estuan egingo du lan Haziren zuzendaritzekin eta arloen eta ARDO BWOren arduradunekin.
- Ardoa BWOren egitura dinamizatzen laguntzea
    - Ardoa BWOko batzordeak (Zuzendaritza Batzordea, Aholku Batzordea eta batzorde Teknikoa) dinamizatzeaz, deitzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da.
    - Ardoa BWO ren Gobernuaren eta batzordeen dokumentuak idazteaz, eguneratzeaz eta egokitzeaz arduratuko da.
- Administrazioekiko harremanak
    - Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, tokiko erakundeak, Ministerioa, Europako Batzordea
    - Ardoa BWO, Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza eta edarien eremurako zerbitzu-burutzak koordinatzen laguntzea
- Ardoa BWOren ekintza, proiektu, jardunaldi eta ekitaldi guztiak koordinatzea
- Basque Wine markaren garapen-estrategia ebaluatzea eta garatzea
- Ardoa BWOren arloko eragile guztiak inplikatuko dituen I+G+b proposamenak sortzea
- Upeltegien atzeraelikadura lortzea, dauden premiei buruz, eta bezeroaren asebetetze-maila hobetzeko lan egitea
- Onetsitako proiektuak gauzatzea, jarraipena egitea eta aurrerapenaren ebaluazioa egitea
- Edarien euskal sektoreari buruzko txostenak ete entregagaiak egitea
    - Edarien euskal sektorearentzat xede diren merkatuei buruzko informazioa jaso, interpretatu eta aurkeztea
    - Sektoreko eragileen marketin-planetan eta merkatu-estrategietan laguntzea
    - Kanpoko enpresekin lan egitea, besteak beste, estrategia-, publizitate-, merkatuen azterketa-agentziekin eta bestelakoekin

- Onetsitako proiektuen justifikazio administratiboa eta teknikoa
- Ekitaldiak eta kanpoko/barneko bilerak antolatzea eta haien jarraipena egitea
    - Azoka, erakusketa, konferentzia eo bestelako ekitaldiak antolatzea eta haietan parte hartzea
    - Sustapen-materialak prestatzea, besteak beste, Ardoa BWOri edo edarien Euskal sektoreari buruzko katalogoak, web-orriak, liburuxkak edo informazioa
- Eskualdeko, nazioko eta nazioarteko finantzaketa-programak eta -mekanismoak aztertzea
- Eskualdeko, nazioko eta/edo nazioarteko proiektu gehigarrien proposamenak prestatzea

BATERAEZINTASUNAK

Kontratuari atxikitako pertsonak, kontratuaren arduradun gisa, erantzukizun hori duen bitartean ezin izango du inolako aholkularitza-, laguntza- edo aholkularitza-jarduerarik egin edarien sektoreko inolako enpresarentzat edo sektore horri lotutako sektore publikoko erakundeentzat; izan ere, ARDOA BWOren zerbitzuek neutralak eta objektiboak izan behar dute sektoreko eragile guztientzat, eta, hortaz, saihestu egin behar dira interes-gatazkak.